

Mondragon Unibertsitateak diplomak banatu dizkie Operazio Zuzendaritzako Masterreko ikasleei

2015/12/14

Bilboko Merkataritza Ganberan ostiralean egin zen ekitaldiari amaiera emateko, Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak; Goi Eskola Politekniko zuzendari nagusi Carlos Garciak eta Bilboko Merkataritza Ganberako idazkari nagusi Juan Carlos Landetak hartu zuten parte. Gainera, *Industria-enpresen nazioartekotzearen gakoei* buruzko hitzaldia eskaini zuen German Lorenzok, Mondragon Korporazioko Nazioarteko Eragiketen departamentuko Asia-Ozeano Barea zonaldeko zuzendariak.

Masterra Bizkaiko Merkataritza Ganberan eman da 2014ko otsailetik 2015eko ekainera arte, eta horren helburua enpresaren prozesuak nahiz emaitza ekonomikoak hobetzea zen. Diplomadunek, 12 urteko lan-esperientzia dute, besteak beste honako karguetan: produktzioko zuzendaria, plantako zuzendaria, ingeniarietako arduraduna, industria-zuzendaria edo zuzendari tekniko moduan.

